



Mungiak Bilboko Euskal Museoko "Euskal kulturaren nazioarteko atea" erakusketa ibiltaria hartzen du

- **Gaurtik, abuztuaren 18tik, irailaren 18ra bitartean bisitatu ahal izango da Torrebillera Kultur Etxearen kanpoaldean, 9:00etatik 14:00etara.**
- **Euskal kulturak osatutako erakundearen etorkizuneko informazio arkitektoniko eta museografikoa biltzen duten 20 panelek osatutako erakusketa da.**

Mungia, 2023ko abuztuaren 18a. Mungiak "Euskal kulturaren nazioarteko atea" erakusketa ibiltaria hartzen du, Bilboko Euskal Museoa antolatuta, gaurtik, abuztuaren 18tik, irailaren 18ra bitartean, Torrebillera Kultur Etxearen kanpoaldean. Erakusketa 20 panelek osatzen dute, Bilboko erakundearen etorkizuneko informazio arkitektoniko eta museografikoarekin. Joan den ikasturtean hasi zuen ibilbidea Bizkaiko hainbat udalerritan. Inaugurazioan izan dira Nagore Torre, 1. Alkateordea, eta Leire Bilbao, 2. Alkateordea, Sorkunde Aiarza Bilboko Euskal Museoko zuzendariarekin batera.

Idurre Urresti Mungiako Udaleko Kultura zinegotziak honako hau adierazi du: "erakusketa hau Mungiara hurbiltzeko helburua ez da soilik bertako jendeak Euskal Museoaren proiektua eta bilduma ezagutzea, baizik eta mungiarrek eta bisitatzen gaituzten turistek euskal kulturaz gozatzeko gune bat hurbiletik ikusi ahal izatea".

Horrela, Mungian gozatu ahal izango diren piezen aukeraketa irizpide bikoitzarekin egin da. Alde batetik, Bilboko Euskal Museoan ikusgai egongo den erakusketa erdiiraunkorraren hautaketaren zati txiki bat aurreratu nahi izan da. Bestalde, bilduma osatzen duten funtsen aniztasuna eta aberastasuna erakutsi nahi izan da, garai, testuinguru eta gizarte-esparru desberdinak islatzen dituen aukeraketa bat eginez, artzaintza-kulturatik hasi eta industrializaziotik eratorritako burgesiari dagozkion piezetaraino.

Erakusketa ibiltarian ikusgai izango diren piezetako batzuk:



Azkonarra

Kanpaitxozen apaindutako forjazko pieza hau arreoan garraiatzen zuten eztei-gurdiaren uztarriaren gainean jartzen zen. "Azkonarra" izenak animalia horren larruari egiten dio aipu, larru horrekin estaltzen baitzen, begizkotik babesteko eta ezkonberriei zortea emateko. Kanpaitxozen hotsak, idien

lepokoan eta gurdiaren gurpilen kirrinkak jendea ohartarazten zuten segizioaren ibileraz.



Linterna magikoa

Ricardo Bastida (1878-1953) arkitektoaren familia-etxebizitzan zegoen gailu optikoa, zinematografoaren aitzindaria zena; Bastidak interes handia zuen bere garaiko berrikuntza teknikoekiko. Kamera iluna du, lente-sorta batekin eta beirazko plaken gainean

margotutako gardenkietarako euskarri batekin. XIX. mendeko lehen hiru laurdenetan instituzionalizatu zen komunikabide gisa.



MUNGIA
UDALA



"Euskal arrantzaleak" (Alberto Arrue, 1925)

Alberto Arrue Vallek XX. mendeko lehen hamarkadetan egindako bi euskal arrantzalaren pintura. Lan hau, beste bostekin batera, Bizkaiko Eskualdeko Jantzien Batzordeak enkargatu zion, 1925ean Madrilen egin zen Eskualdeko Jantzien Erakusketarako. Arrue Euskal Museoan gordetako janzkera-bildumaz baliatu zen bere lanen ikonografia aberasteko.

Informazio gehiago: Mikel Huerta

Komunikazioa@mungia.eus

697527142